

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

5645

EBAZPENA, 2017ko azaroaren 9koa, Portu eta Itsas Gaietako zuzendariarena, zeinaren bidez erabakitzen baita Mundakako portuko amarralekuak erabiltzeko emakidak 7. zerrendako lake-tontziei emateko prozedura deialdi publikoaren bidez hastea.

Euskadiko Kirol Portuak SAk profesionalak ez diren laketontzietarako amarratzeko instalazioak ditu Mundakako portuan, eta amarralekuak erabiltzeko titulu gaitzailea eman beharra dago aurrez, haiek okupatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko portuetako halako tituluak emateko prozedura ezarrita dago 2017ko urriaren 19ko Aginduan, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarenean, zeinaren bitartez laketontzien titularrei amarralekuak emateko prozedura eta horiek erabiltzeko emakiden araubidea arautzen baitira. Izan ere, haren 5. artikulua esaten du Administrazioak amarraleku-eskaerak aurkezteko epea irekiko duela Portu eta Itsas Gaietako zuzendariaren ebazpen baten bidez egindako deialdiaren iragarkia eginez, zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko baita.

Hori horrela, apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren (Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) 7.h) eta 23 6.e) eta 23.c) artikuluek, bai eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko Aginduaren (haren bitartez, laketontzien titularrei amarralekuak emateko prozedura eta horiek erabiltzeko emakiden araubidea arautzen dira) 5. artikulua emandako ahalmenak betez, zuzendaritza honek honako hau

EBAZTEN DU:

Lehena. – Mundakako portuko amarralekuak erabiltzeko emakidak emateko prozedura hastea, deialdi publikoaren bidez, ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren oinarrien arabera.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Azpiegitura eta Garraioko sailburuordeari, edo ebazpena eman duenari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 9a.

Portu eta Itsas Gaietako zuzendaria,
AITOR ETXEBARRIA ATUTXA.

I. ERANSKINA

OINARRIAK

Lehena. – Deialdiaren xedea.

Mundakako portuan 7. zerrendako laketontzietarako amarralekuak erabiltzeko emakidak ematea da deialdiaren xedea.

Bigarrena.– Eskainitako amarralekuak.

1.– Eskainitako amarralekuen kopurua ehun eta hirurogeita hamabi (172) da.

2.– Amarraleku kopurua kategoria bakoitzean honako hau da:

a) 6,50 metro arteko luzera maximoa eta 2,30 metroko errun maximoa duten ontzientzat:

– urte osorako 104 ilabe, Ipar eta Hego eremuetako barne dartsenan kokatuak.

– aldi baterako 13 ilabe, Hego eremuko barne dartsenan kokatuak.

– aldi baterako 27 ilabe, Santa Katalina eremuko kanpo dartsenan kokatuak.

b) 9 metro arteko luzera maximoa eta 3,10 metroko errun maximoa duten ontzientzat:

– urte osorako 16 ilabe, erdiko eremuko barne dartsenan kokatuak.

– aldi baterako 8 ilabe, Santa Katalina eremuko kanpo dartsenan kokatuak.

c) 11 metro arteko luzera maximoa eta 3,70 metroko errun maximoa duten ontzientzat:

– aldi baterako 4 ilabe, Santa Katalina eremuko kanpo dartsenan kokatuak.

3.– Amarralekuak kokatuta daude ebazpen honen II. eranskin gisa gehitutako planoan adierazitako tokian.

Hirugarrena.– Eskakerak.

1.– Ebazpen honen III. eranskin gisa gehitutako eredu normalizatuan aurkeztu behar da eskaera. Eredu hori doan emango dute Euskadiko Kirol Portuak SAREN –hemendik aurrera, EKPreneko Bermeoko instalazioetan (Fraile Leku 1 – 48370 Bermeo).

2.– Halaber, www.euskadi.eus webgunean ere eskura daiteke, atal honetan sartuta: Eusko Jaurjaritza – Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila – Garraioak – Portuak – kirol-portuetan amarralekuak: «amarratzeko eskaera».

Laugarrena.– Dokumentazioa.

Eskaerekin batera, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko Aginduaren 9. artikulua eskatutako dokumentazioa aurkeztuko da.

Bosgarrena.– Eskakerak aurkezteko lekua.

Eskakerak zuzenean aurkeztu ahal izango dira EKPreneko Bermeoko instalazioetan (Fraile Leku 1 – 48370 Bermeo) astelehenetik ostiralera bitartean, 09:30etik 17:00etara, eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015 Legeak) 16.4 artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe.

Seigarrena.– Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaera-orriak aurkezteko epea 2017ko azaroaren 27an hasiko da, eta 2017ko abenduaren 19an amaituko da (astelehenetik larunbatera).

Zazpigarrena.– Prozedura.

Amarralekuak esleitzeko prozedura lehia askea izango da, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko Aginduaren 14. artikuluan ezarritako esleipen-irizpideak kontuan harturik (haren bitartez, laketontzien titularrei amarralekuak emateko prozedura eta horiek erabiltzeko emakiden araubidea arautzen dira).

Zortzigarrena.– Amarralekua erabiltzeko emakida.

Amarralekua erabiltzeko emakidak hamabost urtez iraungo du, ematen den egunetik aurrera zenbatuta.

Amarralekuak erabiltzeko emakiden araubide juridikoa aipatutako Aginduaren III. kapituluan ezarritakoa izango da.

Bederatzigarrena.– Publikotasuna.

1.– Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluekin bat etorriz, EKPrek Bermeoko instalazioen iragarki-taulan (Fraile Leku 1 – 48370 Bermeo) jakinaraziko da eskabideak eta aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko beharra, bai eta, hala badagokio, deialdi hau garatzeko hainbat alderdirekin lotutako informazioa ere.

2.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2017ko azaroaren 22a, asteazkena

II. ERANSKINA



2017ko azaroaren 22a, asteazkena

III. ERANSKINA
ITSASONTZIKO AMARRALEKUAREN ESKAERA

A) ESKATZAILEAREN DATUAK

Izena eta abizenak, edo sozietatearen izena:

IFZ/ANZ/IFK:

Helbidea:

Udalerrria: PK:

Tel.: Helbide elektronikoa:

BANKU-HELBIDERATZEA (eskatzailearen titulartasuneko kontua)

IBAN:

B) ORDEZKARIAREN DATUAK (Ordezkarri bidez jardunez gero bete beharra)

Izena eta abizenak, edo sozietatearen izena:

IFZ/ANZ/IFK:

Helbidea:

Udalerrria: PK:

Tel.: Helbide elektronikoa:

C) DATOS A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN (Cumplimentar si son distintos al apartado A)

Helbidea:

Udalerrria: PK:

D) ITSASONTZIAREN DATUAK

ESKURATU BADU: Izena: Matrikula:

ESKURATU BADU EDO ESKURATZEKO BIDEAN BADAGO:

Marka: Modeloa:

Gehieneko luzera: Gehieneko zabalera Gehieneko sakonera:

E) ESKAERA

Idazki hau eta haren datuak aurkeztutzat izanda, sinatzailea espedienteko alderditzat hartzea eta aipatutako itsasontzirako amarralekua esleitzea **portuan.**

F) ADIERAZPENAK

1. Goiburuan azaldutako zazpigarren zerrenda inskribatutako kirol-ontziari dagokionez:

- a) haren jabe edo jabeakidea naiz gainontzeko titularkideen proportzio berean edo handiagoan, edo
- b) finantza-errentamenduko kontratu baten titularra naiz, edo
- c) ontzia eskuratzeko bidean nago eta, azken kasu horretan, esleitutako amarralekuaren titulartasuna eta okupazioa hiru hilabeteko epearen buruan gauzatzeko konpromisoa hartzen du, esleitzen denetik zenbatzen hasita.

2. D atalean adierazitakoak direla ontziaren egiazko gehieneko neurriak (urrutien dauden puntuen artean neurtutakoak, finkoak ez diren elementu osagarriak barne).

3. Indarrean dauden portuko tasak ezagutzen ditut eta irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretu bidez onartutako EAEko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bateginarekin bat etorrira, dagozkion tasak ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

4. Ez dut zorrik portu-administrazioarekin.

5. Hala badagokio: ontzi bererako zenbakidun amarralekuaren titularra naiz portuan.

6. Egiazkoak dira eskaeran eta eskaerarekin batera doazen agirietan emandako datuak.

7. Eskaera hau sinatuz baimena ematen diot eskaera hau kudeatzen duen organoari, eskumenak dituen Administrazioan eskaera honetan emandako datuak egiaztatzeko edo frogatzeko lanak egin ditzan, baliabide telematikoen zein eskuragarri dauden bestelako baliabideen bidez.

G) ESKATZAILEAREN AGIRIAK (Adierazi aurkeztutako agiriak)

- a. Pertsona fisikoak: NAN edo pasaportea, IFZ edo AIZ.
- b. Pertsona juridikoak: enpresaren IFK, eratzeko eskritura edo agiria, estatutuak edo sortzeko akta, bai eta legezko ordezkariaren ordezkari-tasua eta NANa ere.
- c. Errendamendu finantzarioa: finantza-errendamenduko kontratuaren kopia.
- d. Bankuko datuak: A atalean adierazitako kontuaren titulartasunaren ziurtagiria.
- e. Pentsioduna izanez gero, horren ziurtagiria aurkeztuko da, kasuan kasuko erakunde ofizialak emandakoa eta PFEZ aitortpenaren azken agiriaren kopia.
- f. Eskatzaileak amarralekua eskatu duen ontzia erabiltzea gaitzen duten egiaztagiriak edo ontzia egiaz zuzentzen duen pertsonarenak; azken hori nabigazio-baimenean jasota egongo da, edo titularrak edo titularkideak idatziz baimenduta.

H) ITSASONTZIAREN AGIRIAK (Ontziaren titularra izanez gero)

- a. Rola, nabigazio-lizentzia edo inskripzio-ziurtagiria.
- b. Nabigarritasun-ziurtagiria.
- c. Itsasontziaren idazpen-orria, eskaera egin eta aurreko sei hiletan eguneratuta.
- d. Ontziaren argazkia, 10x15 cm-koa.
- e. Eskaeraren unean indarrean dagoen ontziaren aseguru-poliza eta azken ordainagiria, indarrean dauden legezko xedapenek eskatutako estaldurekin (erantzukizun zibileko aseguru derrigorrezkoa, ontzi-hondarrak portutik kentzeko estaldura barne hartzen duena). Hartzailea eta eskatzailea pertsona bera izango dira.

Lekua eta data:.....

Sinadura-----
(eskatzailea edo ordezkaria)

Abenduaren 13ko 15/1999 Legean xedatutakoarekin bat eginez, Euskal Autonomia Erkidegoko portuetako amarralekuen emakiden titularrek emandako datu pertsonalak «erabiltzaileak» izeneko fitxategi batean bilduko dira, eta portua kudeatzen duen organoa izango da fitxategiaren erantzulea. Fitxategi horrek erabiltzaileen informazioa kudeatzea du helburu, tasak kobratzeari eta portuaren kudeaketari dagokienez. Hala nahi izanez gero, haietara jotzeko, haiek zuzentzeko, ezerezteko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren aurrean. Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz